

Euskararen argi gorria piztu da





AURKIBIDEA

Iritzia Arrate Iturbe **3**

Asteko Gaia Euskarari begirada
hezkuntzan Uemarekin,
merkataritzan Galtzaundirekin eta
kulturgintzan Irene Larrazarekin **4-14**

KMK Josu Ozaita **17**

Bertsoa Alex Goikoetxea **19**

Iritzia Haritz Azurmendi **20**

Iritzia Maddi Dorronsoro **21**

Agenda **22-25**

Elkarrizketa Jon Plazaola,
irabaz dezagun **26-28**



Azaleko irudia
Ibai Luque Eizagirre

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€

bai erabiltzen eta
lana euskaraz

Bikam

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: Ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Erronka



ARRATE ITURBE
ARNASTEN
IKASTEN

Gertutik ezagutzen didazuenok bada-
kizue azken bi urteetan martxan jarri
dudan proiektuaren berri, erleen
mundua ezagutzen hasi besterik ez
dut egin. Aurtengo sasoiaren buka-
tutzat eman dezakegu erlezainok eta negua pasatze-
ko garaia iritsi da. Negua igarotzea tokatzen zaio erle-
ari, naturari, baita guri ere...

Kanpaina deitzen diogu, udaberria hasi eta udazke-
nean ondo murgildutako tarteari. 2021eko kanpaina
nolakoa izan den galdetzen didatenak asko dira... Eta
nire erantzuna, ahalik eta azalpen gehien eman
nahian... «Hortxe... uztaila bitarte hotza izan da erleek
lana egiteko parada askorik ez du izan, tenperatura
nahikoa ez nektarra biltzeko...». Uzta txikiaren aitzaki
bila edo... Erleekin urte asko daramatzaten erlezainek
esaten didate, urte bat bera ere ez dela berdina. Eta
arrazoi dute. Urte batean hotz, bestean lehortea, hu-
rrangoan akazia lorea galarazten duen kazkabarra eta
beste mila faktore gure esku ez daudenak.

Erleekin lanean denbora pasa ahala konturatzen zara,
hamar milaka erleek nola osatzen duten erle bat, pen-
tsatze bat, zeregin bat, denak elkarrekin egiten dute lan
armonian, helburu bakarra lortu asmoz... Zenbat dugun
ikasteko beraiegandik! Zoragarria benetan!

Momentu ziragarria izaten da kaxa bakoitza ireki-
tzen denean. Erregina ondo ari al da erruten? Nahikoa
jan al dute? Gaitzak jo al dio erleari? Osasuntsu dago?
Gauza asko aztertu behar izaten dira... Gure lana hori
baita, erleak zaintzea.

Erreginak egunero 2.000 eta 3.000 arrautza erruten
ditu. Sasoi batean erle bat jaiotzen denetik hiltzeraino
40 egun inguruko bizi-iraupena du eta denbora tarte
horretan inude lanak, garbitzaile, erizain, arkitekto,
etxe sarrera babesten eta nektar eta polen biltzaile la-
nak egiteko gai da! Ez al da ikaragarria? Hori dena sis-
temak funtziona dezan, beraien bizi-irautea. Ez pentsa
gure beharretara lanean ari direnik! Ez, ez! Beraien be-

harrak gure desira bilakatzen di-
tugu guk, urre koloreko eta uda-
berri usain freskoa duen ezti go-
xoa adibidez.

Erleen polinizazio-jarduerak izugarritzko eragina du
tokiko ekosistemetan, biodibertsitatea kontserbatu
eta elikagaiak ekoiztu ahal izateko. Erle batek egune-
an 7.000 lore bisitatuko ditu nektarra jasoz, era bere-
an hauek polinizatuz eta lan guzti honetatik kafe koi-
larakada ezti lortuko dugu. Pentsa kiloa osatzeko zen-
bat lan! Hori dena mehatxuz betetako panorama
batean, barroa, liztor asiarrak, aldaketa klimatikoa eta
agro-toxikoz betetako eremuetan... Bada erronka
handia bai, honetan hasi izana...

Bakoitzak bere aldetik laguntzeko ere egin deza-

**Erleekin lanean denbora
pasa ahala konturatzen
zara, hamar milaka erleek
nola osatzen duten erle
bat, pentsatze bat,
zeregin bat [...] helburu
bakarra lortu asmoz**

ke zerbait, erleek egiten duten moduan denok zer-
baiten alde eginez. Modu jasagarriago batean bizi,
tokiko elikagai agro-ekologikoak kontsumitu, erin,
landatu, loreak, landareak, zuhaitzak, arnastu eta
bizi-naturarekin bat egin... Bide batez ere proposa-
men ausartago bat ere badut, bilakatu zaitez erleen
babesle, gure etxeko ateak beti irekita daude inte-
resa duen ororentzat!

Orain negu giroa den honetan deskantsatu deza-
gun guztiok, erleen modura, berriz ere udaberria
etortzen denerako sasoi batean egoteko!

Erleak eta osasuna guztioi!



EZ DA NAHIKOA EUSKARA JAKITEA

Tolosaldeko ia-ia haur guztiek dakite euskara gaur egun, baina haurrek euskarari ematen dioten erabilerak «kezka orokorra» sortu du; Uemak dio, «gero eta gehiago, eta gero gazteago egiten dute umeei gaztelaniaz». Hezkuntza komunitate osoan eragin beharra ikusi dute, ikasleekin eta irakasleekin batera, gurasoak dira ezinbesteko zutabea.


Eneritz Maiz Etxarri

Aspaldian idatzi zuen Joxean Artze poeta, idazle eta musikari handiak «hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik». Horixe ari da gertatzen Tolosaldean hurrekin. Ia-ia eskualdeko haur guztiek dakite euskara, baina erabileran atzerakada sumatzen da eta argi gorri guztiak piztu dira.

«Oso-oso argia da, bai udaletatik eta baita eskoleetatik ere, kezka handia dago haurren euskararen erabilerarekin», esan du Maier Ugartemendia Uemako

euskara teknikariak. «Bai hizkuntzaren erabilerarekin, eta baita kalitatearekin ere, oso-oso kezkatuta daude bereziki eskoletan», argitu du. Gainera, «gero eta gehiago egiten dute gaztelaniaz, eta gero eta gazteagotan hasten dira», zehaztu du.

Kezka horretatik abiatuta, Uemako herrietan eskoletako patioetako hizkuntza erabilera aztertzen ari dira sentsazioek datuekin bat egiten ote duten aztertzeko. Datuak jasoak dituzte, eta eskualdeko hiru ikastetxek parte hartu dute neurketa horretan, orain azterketa kualitatiboa egiten ari dira.



Uemak ikastetxeetan eskaintzen duen tailerretako bat. **UEMA**

«Kezka orokorra da», dio teknikariak. «Ezagutza aldetik ez dago arazorik. Ezagutza ia-ia unibertsala da Tolosaldean. Haur ia-ia guztiek dakite euskaraz, eta ulertzeko gai dira. Hortaz, gaitasun hori badagoe la ikusita kezka sortzen du erabileran jaitsiera izate-ak», azaldu du Ugartemendiak. Aurrera begira jarri dira Uematik: «Haurrak dira euskararen etorkizuna. Eta hor jaitsiera egonez gero, adin tarte horretan hizkuntza ohitura asko ezartzen dira. Aurrera begira bilakaera horrek horrelakoa izaten jarraitzen baldin badu, euskararen erabileran jaitsiera izango da».

«Arnasguneetan eta udalerrri euskaldunetan ger-
tatzen bada; hau da, euskararen biziraupenerako eta normalizaziorako hain garrantzitsuak diren gunez ari bagara», kezka areagotu egiten da. «Tolosaldea beti esaten dugu arnasgune bat dela, eta arnasgune-ak dira euskararen biziraupenerako beharrezkoak di-
ren guneak. Gune hauetan hartzen du euskarak ar-
nas; euskararen birrikak dira, eta euskara belaunaldiz

belaunaldi transmititzen da bertan, euskara bizirik dago».

Tolosaldearen pareko guneak beharrezko dira hiz-
kuntzaren biziraupenerako: «Gune hauetan jaitsiera horrekin jarraitzen baldin badugu, kezkgarria izan daiteke hizkuntzaren bilakaera».

Euskararen erabilera ez dela azken urtean okertu dio, «bilakaera orokorra lehenagotik datorren zer-
bait da». Tolosaldeko herrietan, «bai ezagutzan eta baita erabileran ere, azkeneko urteetan jaitsiera izan da herri askotan», gaineratu du Ugartemendiak. Bila-
kaera horretan, «haurren erabilerari lotutako kezka jada urte batzuetatik bazetorren, baina egia da pan-
demia garai hori ikastetxe askok aipatzen dutela koska moduan». Pandemia garaian, pantailen aurre-
an ordu asko egin izanak, eta zenbait kasutan etxean sartuta egoteak ere, erabileran jaitsiera eragin duela-
koan daude.

Hezkuntzari begira, lanean

«Uemaren lan ildoetako bat hiztunen ahalduntzea da, eta horretarako beharrezkoa da herritarren sen-
sibilizazioan eta kontzientziazioan eragitea», kon-
tatu du teknikariak.

«Hiztun bezala faktore desberdinek eragiten dute guban, eta adibidez, Tolosaldean gehienak euskal-
dunak gara naturalki, baina agian kontzientziazioan hutsune bat bada», dio. Hain zuzen ere, kontzientzia-
zioan eragiteko asmoz hasi ziren ikastetxeetan lane-
an, eta bertan eduki soziolinguistikoei lotuta hutsu-
ne bat bazegoela identifikatu zuten.

Hasiera batean, ahalduntzea helburu hartuta, ar-
nasguneetan tailerrak batxilergoko ikasleei begira egiten hasi ziren. «Orduan gure lankide zen Xabier Aizpuruak master amaierako lana hezkuntzaren in-
guruan egin zuen, eta proposamen batzuk egin zi-
tuen eduki soziolinguistikoak DBHko unitateetan txertatzeko». Pixkana-pixkana ikastetxeetatik eska-
erak jasotzen joan dira, eta «behar hori sumatzen ge-
nuelako hezkuntza proiektua garatzen joan gara». Hasieran, DBHko unitateekin hasi ziren. Gero etorri ziren beste zikloetako unitate didaktikoak, Batxiler-

goko tailerrak, HH eta LHko unitate didaktikoak, eta gerora bestelako tailer osagarriak ematen hasi ziren.

«Urte hauetan ikastetxeekin izan dugun harremanaren ondorioz ikusi dugu, honi guztiari txapel orokor bat eman behar zitzaiola», dio. Ikasle horiengan eragin nahi bada beharrezkoa ikusi dute, «ikasle horiek eta ikastetxeek osatzen duten hezkuntza komunitate osoari eragin beharra; hor daude irakasleak, ikasleak eta gurasoak». Horiek dira hiru zutabe nagusiak.

Hedatu izena du Uemaren hezkuntza proiektuak, eta hiru zutabe horietan eragiten ahalegintzen dira. Ikasleekin -HH, LH, DBH- unitate didaktikoen bidez lantzen dute: «Unitate didaktikoak gure webgunean zintzilikatuta daude, eta webgune horretatik hartzen dute materiala irakasleek, eta ikasleekin lantzen dituzte. Horretarako guk irakasleak formatzen ditugu». Batxilergoan Uemako teknikariek gidatzen dituzten tailerrekin eragiten dute. Horiez gain, tailer osagarriak ere eskaintzen dituzte.

«Gu joaten gara ikastetxeetara, eta ikasleekin tailer batzuk egiten ditugu», azaldu du Ugartemendiak. Hizkuntzaren bilakaeraren inguruan edo beraien hizkuntza ohiturei buruz hitz egiten dute. «Tartean daude Batxilergoko tailerrak, eta ordu eta erdiko bi saio ematen ditugu tailer horien bidez ikasleak ahalduztzeko». «Tolosaldeko ingurune soziolinguistikotik ateratzen direnen kasuan ahaldunduta egon daitezten», argitu du.

Irakasleei dagokionean ere lanketa berezia egiten dutela adierazi du irakasleak formatu daitezen: «Irakasleak ere sentsibilizatzea ezinbestekoa dela uste dugu. Soziolinguistikako kontzeptuen berri izatea ere ezinbestekoa da, eta gehiago gurea bezalako eskualdeetan. Esan dudan bezala, arnasmune bat da gurea, eta herri horietara etortzen diren irakasleek kontziente izan behar dutela uste dugu».

Hori horrela, irakasleei bi formazio ematen dizkiete; bat soziolinguistikaren inguruan, orokorra, eta horren barruan sartzen da *Hedatu* proiektuaren inguruko formazioa; hau da, material hori lantzeko hainbat eduki. Eta bigarren formazioa, «azkeneko urteetan sortu den beharretik edo egin dizkiguten



eskaera horietatik sortua izan da». Irakasleei ikasgelan sortzen zaizkien egoera desberdinetan, euskarari eusteko hizkuntz estrategiak erakusten dizkiete. Egunerokoan erabili ditzaketen estrategiak dira, hain zuzen ere, ikasgelan gaztelaniarako joera badago edo euskara hain gertu ez daukaten ikasle horiengan eragin ahal izateko.

2016an hasi ziren hezkuntza proiektuarekin, eta pixkana-pixkana joan dira harremana egiten. Ia eskualdeko ikastetxe guztiek parte hartzen dute, eta «oso-oso pozik gaude ikastetxeek emandako erantzunarekin», esan du. Uema ere behar berrietara egokitzen ari da.

Gurasoen zutabea, «ezinbestekoa»

Hirugarren zutabea gurasoak daude, eta Uemak «ezinbestekotzat» ditu seme-alaben hizkuntza erabileran eragiteko. «Ez dugu ahaztu behar, eta ikerketa desberdinek erakusten dute, gure ikasleek urte



guztiko orduak kontuan hartuta ikastetxean pasatzen dituzten orduen kopurua %15 dela; 365 egunak kontuan hartuta, urtebeteko %15 besterik ez dute pasatzen eskolan».

«Hezkuntza ezinbestekoa da, eta egia da hezkuntzak asko lagundu duela ikasleak euskalduntzen. Jende asko euskaldundu da horri esker, baina horretaz aparte eragin beharra ezinbestekoa da». Txiki-en kasuan, bereziki, gurasoen atala ezinbestekoa dute. Batetik, «beraiek jokatzten duten erreferente paperarengatik», eta bestetik, «ikasleei ikastetxetik kanpo euskarara gerturatzeko ematen dizkieten aukerengatik».

«Ez da nahikoa hizkuntza transmititzea», dio. «Hori garrantzitsua da eta ezinbestekoa da, baina, horrez gain, gurasoek ere asko egin dezakete ume horiek euskaraz bizi daitezen, eta askotan ikastetxearen gain jartzen da karga hori».

Eskolako %15az aparte, «ikasle horiek beharrezkoa

dute euskaraz jolastea, beraien aisia euskaraz egitea, gaur egun hainbeste eragiten ari den kultur kontsumo horretan eragitea,... eta hori gurasoek bultzatu dezakete».

Eskolatik kanpoko aisialdiari ere bere garrantzia eman behar zaiola azpimarratu du Ugartemendiak: «Hor ere zein hizkuntza erabiltzen duten, erreferenteak eman, gaur egun euskarazko erreferente gero eta gutxiago dauzkagu, baina hor ere, gustuko duten horretan, gurasoek erreferente desberdin horiek eman beharko lizkieke euren seme-alabei. Eta hori ere euskaraz egin daitekeela ikustea ezinbestekoa da».

Gurasoek seme-alabekiko jokatu beharko luketen «paper garrantzitsuaren aurrean», gurasoentzat ere, saio ezberdinak dituzte. Batez ere, seme-alaben hizkuntza ohituretan eragiteko.

«Euskalduntzearekin ez da nahikoa»

«Lan asko dago egiteko, eta ikusi dugu euskalduntzearekin soilik ez dela nahikoa», adierazi du eskualdeko ikastetxeetan lan egiten duen teknika-riak. «Ikasle horiengan eta gure ondorengo euskaldun horiengan eragin beharra dagoela ikusi dugu».

«Egoera aldatu da. Kultur kontsumoa ikaragarri aldatu da. Jasotzen duten input mediatikoa oso handia da, erreferente euskaldunen falta ere agerikoa da, eta hor zeregin handia daukagu; bai hezkuntza komunitateak orokorrean, eta baita gizarteak ere», zehaztu du. Alde batetik, haur horiei ematen zaien eredua legoke, eta bestetik, zein baliabide eskaintzen zaizkien.

Guztiz gain, ikastetxeetako ikasleen aniztasuna gero eta handiagoa dela ekarri nahi izan du gogora, eta beste hizkuntzen presentzia ere gero eta handiagoa dela hezkuntza komunitate osoan: «Hor ere beste faktore bat dago bilakaeran eragin duena». «Lehen euskara eta gaztelania geneuzkan, eta gaur egun euskara, gaztelania, eta agian beste hamabost hizkuntza dauzkagu ikastetxe bakoitzean. Hizkuntza aniztasun hori ere nola kudeatu ikastetxean ikasten eta lantzen ari gara».

Merkatarien %88 gai da euskaraz egiteko

Euskarak merkataritzan behar duen tokia izan dezan lanean ari da Galtzaundi Euskara Taldea; Amasa-Villabonan, Ibarra eta Tolosan ari da eragiten, eta inurri lanak «fruituak» eman dituela adierazi dute

E. Maiz

Herri baten parte da tokiko merkataritza. Herriak biziak izateko merkataritzak garrantzia du, eta merkatarien hizkuntza hautuak ere gizartean eragina du. «Saltokiek herriko bizi giroan eragin handia dute. Halaber, herriko irudi eta erakusleho dira. Gure herrietan bertako nahiz beste tokietako jendea aurkitu dezakegu, eta, horregatik, garrantzitsua da euskara gure herriaren marka ere badela adieraztea», argitu du Galtzaundi Euskara Taldeak.

Euskararen normalizazioaren noranzkoan urratsak emateko, azken urteetan, «inertziak alboratu eta hizkuntzaren hautua modu kontzientean egitea helburu, aurrez aurreko bisitak egin ditugu», argitu dute

euskara taldetik. Galtzaundiko teknikariak Amasa-Villabonako, Tolosako eta Ibarra eta Tolosako saltokietan izan dira, eta bisita horietan teknikariek, arlo teknikoari lotutako eskaintza egitearekin batera, beste hainbat baliabideren eskaintza ere egin diete.

Urtez urte saltzaileei beraiei euskararen ezagutzari buruz ere galdetu diete, eta «batez beste, hiru herrietako saltokien %88an, bada zerbitzua euskaraz eman dezakeen norbait», nabarmendu dute.

Tolosaldeko esperientziari lotuta aurrerapauso «handiak» eman direla azpimarratu dute Galtzaunditik: «Merkataritza arloari begira egindako lanketek eman dute fruiturik». Urte luzeetan, «dendaz denda, eta tokiko eragile diren merkatariek elkarrekin, udalak eta Uemarekin elkarlanean, euskararen komunika-

ziorako gaitasunak balioan jarritz eta bitartekoak eskainiz egin da inurri lana», argitu dute.

Merkealdi kanpainak

Neguko eta udako merkealdi kanpainetan Tolosan lanketa berezia egin dute azken hiru urteetan. «Uemak sortutako euskarri fisikoak merkealdian parte hartzen duten saltokietan eskaini eta banatu dira», esan dute. Azken hiru urteetan, hiru kartel eredu banatu dizkiete: ehunekoak (%20, %30...), «Merkealdia» kartel orokorra eta ohiko esamoldeak («Denboraldi berria», «Azken egunak»...).

Azken urtean, Amasa-Villabonako saltokiek ere kanpainarekin bat egin dute. Eta hori horrela, udako merkealdi kanpainako Amasa-Villabonako kartel nagusietan euskarak %100eko presentzia izan duela aurreratu dute.

Zertarako euskara?

«Herriko saltokietan zertarako euskara?» galdera luzatu dute Galtzaunditik, eta erantzuna argi dute: «Herriarrekiko gertutasuna eta konfiantza landuz fideltasuna indartzeko; herriarekiko integrazioa eta identifikazioa lortzeko; eta euskaraz bizi nahi duten herritarrei aukera errazteko».

Egunerokoan, ahozko nahiz idatzizko komunikazioaren bitartez, besteak beste, «pertsuasioa eta fidelizazioa», landu behar dituzten gunetzat ditu Galtzaundik. Hizkuntzak, «erosketa esperientzia on bat sortzeko, komunikaziorako funtzio zeha-

tzak betetzen ditu tokiko merkataritzan», zehaztu dute.

«Komunikazio horien hartzaileak, hizkuntza batean edo bestean egitera bultzatzen dituzte. Erraz egiten da euskaraz erakuslehoan mezuak euskaraz ikusiz gero, saltzailea eta aurreko eroslea euskaraz ari direla entzunez gero». Aldiz, «gehiago kostako zaigu euskaraz egitea, batean zein bestean gaztelera baino ikusten edo entzuten ez badugu».

Sare sozialak eta euskara

2021eko egitasmoaren barruan, bigarren erakusleho diren sare sozialetan euskara erabiltzeak duen garrantziaz ohartarazi diete merkatariei. Banatu dieten esku orrian, «sare sozialetan euskara erabiltzeak ekartzen dituen onurak bildu dira», dio euskara taldeak. Eta Amasa-Villabonako, Tolosako eta Ibarako herrietako saltokien sare sozialetan –webgunea, Instagram eta Facebook– euskarak duen erabilera ere neurtu dute.

Bukatzeko, «urtez urteko lanketen ondorioz euskarak saltokietan geroz eta ikusgarritasun handiagoa duela esan dezakegu», azpimarratu dute Galtzaunditik. Lanketa guzti horiekin, «tokiko saltokiek beraien balio soziala indartu egiten dute, herriko garapenerako ezinbesteko bilakatzen direlarik, eta euskararen normalizaziorako bidelagun izan». Bide horretan, herritarrei ere erronka luzatu diete, erosketak bertan eta euskaraz egitera bultzatuz.

ATARIAN jarrita Goierrri
eta Urola Kostako
Hitza egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.



«Gazteentzat euskarak cool-a izan behar du, bestela ez dute erabiliko»

IRENE LARRAZA

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUKO ZUZENDARIA

Hilabete barru lau urte beteko dira Etxepareko zuzendari izendatu zutela. Euskal sortzaileen lana goraipatzekoa bada ere, etxean lan handiagoak egin behar ditugula nabarmentzen du; bere ustez, «sortutako hutsunea betetzeko aukera ederra» izango da Durangoko Azoka.

Josu Artutxa Dorronsoro

2018ko urtarrilean hartu zuen Irene Larrazak (Tolosa, 1970) Etxepare Euskal Institutuko zuzendari kargua. Elkartea bera sortu zenetik zuzendaritzan izan da tolosarra. Ez dira garai onenak euskal kulturaren sustapenarentzat, baina Larrazak erronka berriekin eta ilusioz egingo dio aurre urte berriari.

Zein balorazio egiten duzu zuzendari modura urtarrean beteko dituzun lau urte hauen inguruan?

Urte guzti hauetan, barru-barrutik ikusi ahal izan dut

elkartearen garapena eta eboluzioa. Azken urteetan, sendotu egin da, bai euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntza munduan, baita kultura sustatzeko dinamiketan ere. Ideiak gero eta garbiago ditugu, eta bertako nahiz nazioarteko eragileekin elkarlanerako harremanak egitea geroz eta errazagoa izaten ari da.

Azken urte eta erdia, ordea, ez da batere erraza izan zuen helburuak betetzeko. Zein egoeratan aurkitzen da elkartea?

Egia da 2020ko eta 2021eko dinamikak erabat desberdinak izan direla eta ez direla batere lagungarriak izan, baina nire ustez, berriro helduko diogu lehengo erritmoari. Irakaskuntza da Etxeparen lantzen dugun lan-ildoetako bat. Hori, gainera, bi sare nagusitan banatzen dugu: unibertsitateetan eta katedratan. 35 irakasle ditugu unibertsitate desberdinetan, euskara eta euskal kultura irakasten dutenak.

Bestetik, bederatzi katedra daude, goi mailako euskal ikasketekin: Ameriketako Estatu Batuetan bost, European hiru, eta azkena, Argentinan. Doktoretza mailako ikasketak sustatzen ditugu, sendotzen ari da, eta gainera, berriak zabalduko ditugu datozen urteetan. Halaber, 80 Euskal Etxeetan ere eusten diote euskara irakasteari, eta sare hori ere guk kudeatzen dugu. Lantzen dugun beste lan-ildoak kultur sustapena da. Kasu honetan, batez ere iaz albo batera utzitako hariak berreskuratzen ari gara; ez ditugu askatu nahi izan.

Nola eragin du koronabirusaren pandemiak euskararen hedapen horretan? Zein ondorio ekarri ditu?

Irakaskuntzari dagokionez, bat-bateko aldaketa bat egin behar izan genuen. Arrapaladan, aurrez aurreko irakaskuntzatik, *online* modura irakastera igaro behar izan genuelako. Unibertsitate sarean ere, inprobisazioak garrantzia nabarmena izan zuen, baina errazagoa izan zen erabakiak hartzea. Izan ere, unibertsitateek ez zuten arazorik baliabideekin, ez kalitate aldetik, ezta kantitate aldetik ere, eta beraz, erraz bideratu ahal izan zen *online* egin ahal izateko.

Euskal Etxeen sarea, ordea, ahalagoa da. Kasu honetan, zenbait zerbitzu eman ahal izateko ordenagailuak erosi behar izan genituen. Hala ere, argi dugu aurrez aurreko irakaskuntza ez duela ezerk ordezkatzeko, ezta *online* bidezko irakas-

«Datorren urtean hiru katedra berri zabalduko ditugu Galesen, Bakersvillen eta Quebecen»

kuntzak ere. Etorkizunera begira ikasgai bat izaten ari da, *online* metodologiak osagarri modura funtzionatu dezakeelako. *Online* bidez egiten diren dinamika batzuk interesgarriak izaten dira, ahal bada, aurrez aurreko sistema kendu gabe. Kulturaren sustapenean badira egitekoak *online* egingarri direnak; beste batzuk, ordea, ezinezkoa da pantaila baten bitartez egitea, proposamen eszenikoak, adibidez. Bide berriak eraikitzen eta hartzen ikasi dugu, baina neurri handi batean, betikora itzultzeko irrikaz gaude denok.

Zuen kasuan, zein garrantzia du aurrez aurrekoak?

Ezinbestekoa da, zalantzarik gabe. Proiektu handiez hitz egiten dugunean, askotan, proiektu txiki asko izaten dira horien barruan. Esaterako, Quebecen, itzultzaile mordo bat ari da euskaratik frantsesera itzultzeko trebatzen. Lan horiek egiteko, dinamikak eta harremanak elkarrekin garatzea oso garrantzitsua da. Ez da gauza bera hori pantailen bitartez egitea, noski. Orain, horrela funtzionatzea egokitu zaigu, eta akaso, baikorregiak izan gara, «hilabete batzuk barru guztia bere onera itzuliko da» esaten aritu izan garenean. Zoritxarrez, ez da horrela izan, baina ziur naiz halako batean guzti honi buelta emango diogula.

Une honetan, zein proiektu eta egitasmo dituzue martxan?

Lehen katedrak aipatu ditut, eta goi-mailako ikasketei dagokienez, kanpoko ikertzaileak guri begira jartzea da gure helburuetako bat. Datorren urtean jasoko dugu azken urteetako lanaren emaitza: hiru katedra berri zabalduko ditugu Galesen, Bakersvillen eta Quebecen.

Hain justu, azken hiri horretako eragileekin elkarlanean, 2020 osorako kultur programa indartsu bat antolatu genuen, era guztietako di-

IRAGARKI LABURRAK

Salgai. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak salgai. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

Salgai. Bidania-Goiatzen eskuz bildutako errezil sagarra

salgai. Deitu 652 71 87 51 telefono zenbakira.

Alokagai. Etxe bat alokatzen da Tolosako Alde Zaharrean. Altzariekin, guztiz hornituta dago. Interesatuak deitu 677 000 005 edo 667 320 911 zenbakietara.

ziplinentzako leiho zabal bat. Berez, 2019an Eskozian abiatu genuen proiektu baten jarraipena izango zen. Iaz, noski, ezinezkoa izan zen hori gauzatzea, baina aurten ez gara geldirik geratu, eta udaberrian ekin diogu programa horri. 2022an ere indartsu eutsi nahi diogu egitasmo honi, batez ere udara eta udazken aldera. Espero dugu gauza gehiegi ez pilatzea, eta ahal dela, saioak, emanaldiak edo dena delakoak, aurrez aurre izatea.

Azkenik, Flandria izango da guretzako hurrengo toki estrategikoa. Duela gutxi bertako bisitariak izan genituen hemen; hamazazpi eragilek bisitatu gintuzten, bertako sortzaile eta eragileekin harremanetan jartzeko eta elkar ezagutzen hasteko. Bi herrien arteko proiektuak 2023an loratzea da nahia. Aurrez, gauza interesgarri ugari helduko dira 2022an.

Zein iritzi dute Euskal Herritik kanpo, batez ere kontaktuak dituzuen herrialdeetan, hemen egiten duzuen lanaz?

Euskal Herritik kanpo ez ditugu aipatu berri ditugun kontaktu handi horiek soilik lantzen. Euskal leihoak izendatzen ditugu harreman horiek, eta guztira, 50 bat ditugu. Urtean zehar antolatzen dituzten jaialdi, azoka edota

kultur programazioetan sendotzen ditugu harreman horiek; ekitaldi horietatik kultur sortzaileak igarotzea eta egiten duten lanaren berri ematea izaten da helburu nagusia. Guk proposamenak egiten ditugu, baina tokian tokiko programatzaileak jakitun dira sortzaileen jardueraz eta zein publiko mota mugitzen duten. Gure lana gidari modura aritzea da, indarrean dauden eskaintzak aurkeztea, baina gero, programatzaileek egiten dute hautaketa. Nazioarteko edozein jaialditan ez dugu aurkituko munduko beste herrialde batetik datorren kultur proposamen baten pareko mailarik ez duen inor.

Urtetik urtera, eta diziplinaz diziplina, ohartu gara badugula zer eskainia, eta nazioarteko jaialdietan ere jakitun direla eta programatzen dutela. Gure sortzaileen estandarrak nazioartekoekin parean daude, eta hori ez da soilik Etxepareren lanari esker gertatu. Gure eskaintzak ez baluke nahikoa kalitate, ez litza-

«Gure sortzaileen estandarrak nazioartekoekin parean daude, baina ez dute profesional izatearen onarpena»



teke hor egongo. Une honetan, beraz, sorkuntza maila altua dugu, akaso diziplina batzuetan garatuagoa, baina gure

sortzaileak gure enbaxadore onenak izan daitezke, zalantzarik gabe.

Zein da gaur egun, euskal sortzaileen panorama?

Euskarazko edukiak sortzea ez da batere erraza, batez ere maila profesionalean. Horren inguruan kezkatuta egon beharko genukeela iruditzen zait. Gure sortzaileek ez dute profesional izatearen onarpen hori. Lan handia dugu egiteko. Sortzaileek egiten duten lan horrek aitortua izan behar du, ekonomiko-ki nahiz legalki, eta baliabideak jarri nahiz erraztasunak eman behar ditugu horretarako.

Halaber, euskal kulturgintzak merkatuaren beharra ere badauka; programatzaile publikoak behar dira. Audientziak desberdintzeko beharra ere badugu, euskal kultura kontsumitu dezaten. Ondorioz, gakoa da kulturen inbertitzen dena inbertsio kontsideratzea, eta ez gastua. Herriarenganako, identitatearenganako eta sortzaileenganako inbertsioa izan behar-



Ettxepare Institutuko ordezkariak Wrocławko (Polonia) 'Air Wro Talks - International Conference on Culture' jaialdian. **ATARIA**

ko litzake, erabat funtsezkoa. Kanpoan hori kontatzen dugunean, garbi ikusten dugu, herrigintzaren aldetik ere oso dinamika garrantzitsua dela. Kulturgintzan lan egiten dugunok garbi daukagu hori, nahiz eta askotan ez den horrela interpretatzen.

Euskarazko sorkuntzak kanpora eramatea da gure ardura, baina badira hizkuntzarik ez duten diziplinak ere. Euskaraz ez direnak ez dira diru laguntzetan kanpoan geratzen. Hala ere, euskarazkoak lehenesten ditugu; horrela funtzionatzen dugu, Euskal Herri osoan egiten diren euskarazko lanekin. Ipar Euskal Herrian nahiz Nafarroan euskaraz sortzen ari direnek ere Ettxeparen dute euren etxea. Errealitate desberdinekin egiten dugu topo; esaterako, Ipar Euskal Herriko kasua desberdina da, arautegiagatik. Denetan dago asko egiteko, maila guztietan, eta kanpoan kontatu aurretik, ezinbestekoa da hemen gertatzea. Ondorioz, bizirik eta lanean behar ditugu sortzaileak.

Uemak aurreratutako datuetan (urte berriarekin

«Bidegurutze garrantzitsu batean gaude; euskarak zaintza berezi bat behar du, formatu eta plataforma guztietan egoteko»

batera argitaratuko direnak), gazte zein haurren artean, euskarazko kultur kontsumo ohituren datuak ez dira batere baikorrak. Zein da zure sentsazioa?

Nahiko zuzenean bizi dudan gaia da, etxean badituzdalako haurrak, honezkero gaztetxoak direnak. Egia da Uemak dioena. Gertatzen ari da, eta kalean bertan ere argi ikusten da. Nire ustez, une honetan bidegurutze garrantzitsu batean gaude. Guztiok, baina

batez ere gazteek, globalizazioaren eragin handia dugu. Gaztelaniaren eragina da handiena noski, baina ingelesarena ere badute. Gazteen kontsumoa, neurri handi batean, ikus-entzunezkoen bitartez bideratzen da; hori, hein handi batean, ingelesez gertatzen ari da, eta hori oso ona da. Ingelesa oso praktikoa da, baita gaztelania ere, eta munduarekin komuni-

katzeko balio dute. Baina noski, testuinguru horretan euskarak zaintza berezi bat behar du. Euskara erabiliko badugu, eta gure gazteek erabiliko badute, eremu digitalaren nahiz teknologikoaren alor guztietan egon behar du. Hori identifikatuta dago, eta urratsak ere ematen ari dira, baina bide bat dugu egiteko, martxan dagoen tren hori ez galtzeko.

Formatu eta plataforma guztietan egon behar du euskarak, baina ahal den neurrian. Izan ere, gurea ez da ekonomikoki pisu bat duen hizkuntza, eta politikoki ere ez dugu estatu bat ordezkatzeko. Egunero koan gertatzen diren zenbait adibide ere jarri ahal izango nituzke, gerora, munduko mapan eragozpen ugari ekartzen dituztenak.

Ez da batere erraza, baina teklak sakatzeko asmatu behar da. Gazteentzat euskarak zerbait cool-a izan behar du, bestela ez dute erabiliko. Kezka hori dut, urte gutxian, aisian nahiz gailu teknologikoen erabi-

leran, euskararen presentziak nabarmen egin duela-ko behera. Horregatik, hezkuntzak bere biziko garrantzia du, baita gainerako dinamikak ere, batez ere, etxeko dinamikak. Guraso askoren jarrera errazkeriara jotzea izan daiteke, ez baitakit euskara konturatu gabe baztertzen dugun ala ez. Kontziente izan behar dugu horri aurre egin behar diogula, eta horretarako, ohartzea da lehen pausoa.

Durangozko Azoka da ate joka dugun urteroko hitzordu nagusietako bat. Kontsumorako hutsune hori betetzen laguntzeko aukera ona da, ezta?

Bai, zalantzarik gabe. Harrotasuna eta herrigintza batzen dira bertan. Azokak berak ekarpen handia egiten du bi eremu horietan. Euskal kulturaren eta euskal sorkuntzaren festa bat da. Baina ez hori bakarrik. Garrantzitsua iruditzen zait duen bolumenaz eta garrantziaz jabetzea. Asko gara komunitate horren parte, eta festa horretan egotea axola zaigu, kontsumoa sustatzen duelako.

Ezinbestekoa iruditzen zait horrelako ospakizunak egitea, non eta harrotasun hori kontsumoarekin ere lotzen den. Kontsumoa ez da beti negatiboa, eta batez ere,

«Militantzia eskatzen du euskal kulturak; gerora, uzta ederra ekartzen du, bai herri bezala, baita norbanako gisa ere»

gauza berriak deskubritzeko balio du. Egunero gabilta komunikabideetan agertzen diren berrikuntza edo nobedadeen atzetik, eta askotan ez dugu guztien berri izaten, korrika bizi garelako.

Bestetik, oso polita da sortzaileak hain gertu izatea. Lehen desabantaila batzuk aipatu ditut, baina abantailak ere baditugu. Zorionekoak garela iruditzen zait, gure sortzaileak aurrez aurre ezagutu ahal izateko zortea izaten dugulako. Borondate apur bat izanez gero, haiengana hurbildu eta harremana izate hutsa oso emankorra izan daiteke.

Aurreko urteetan bezain beroa ez da izango, ezarritako neurriengatik. Baina, euskal kultur panoramari erreparatuz, zein momentutan helduko da?


Azken bi urteetan, badira eten diren zenbait kultur ekimen; sorkuntza lana, ordea, ez da gelditu, eta hori

ikusiko dugu bertako eskaintzan.

Seguru nago urte oso oparoa izango dela, eta Durangon ez bada, gerora, bertatik kanpo izango da. Esfortzu txiki bat egin behar dugu, militantzia eskatzen baitu euskal kulturak. Gerora, uzta ederra ekartzen du lan horrek, bai herri bezala, baita norbanako gisa ere.



GABONETAN OPARITU BERTAKOA, OPARITU ATARIA



Oparitu urtebeteko Atariako harpidetza
zuk nahi duzunari, eta jaso
katilua edo koadernoan doan

Atarikide digitala: 55€. Atarikide harpidea: 83€

*(produktuak agortu arte)

Ataria

Egin zure erreserba abenduaren 22a baino lehen.
943 65 56 95 / atarikide@ataria.eus

Lagundu Atarikide sarea zabaltzen



ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

TOLOSA:
J.L. MUÑAGORRI HARATEGIA - Gorosabel, 5
ITURRALDE HARATEGIA - Oria, 8

VILLABONA:
MUSTURINEA HARATEGIA - Nagusia, 14

ZIZURKIL:
JOXEAN HARATEGIA - Bulandegi Bidea, 1

hazi


Euskadi, auzolana
EUSKO TALUKARIETZA
GOBIERNO VASCO



Nafarroa etorb.
13 behea. TOLOSA
670 417 922
943 65 0313

 **gorriti | martínez**

San Frantzisko pasealekua 14, Tolosa
Tel: 943 650 192
www.gorritimartinez.com



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM





JOSU OZAITA
KMK
KOORDINAZIOA



Izan zen lotsa, eta era berean, munduko harrotasunik handiena.

Harrotasuna, umiltasunez. Txikia, baina ez eskasa.

Transgresioa izan zen, erregimen bati hortzak erakusteko hautu politikoa.

Herri mugimenduaren bileretako hizkuntza izan daiteke,

baina ez hurrengo zurito poteoko tertulia.

Eta urteen poderioz, hizkuntza burokratikoa dela. Diote. Ikasteko hizkuntza.

«Kriston pille flipatzen den, hi!», entzun daiteke, ordea. Flipatu! Hi!

Hipsterrak hitz eginez, hiriburuan.

Altxorra eskuetan izatearen pirata sentsazioa. Eta altxorra konpartitzeko gogoia.

Parrandan aritu zaitezke, haserretu harekin, eta maitasuna egin. Hobe.

Emozionatu gaitu, hitz egiten jarri, eta elkartu; komunitatea egin.

Gorrotoa ere sortu dezake, erotismoari atea irekitzen ez dietenei.

Eta halako batean, giltza sekretu bilakatzen. Ikusezinei irribarrea bueltatzen diena.

Herrian bertan mundu berri bat zabaltzeko atea irekitzea.

Itxi baino, irekia izan nahi duena; irabazteko.

Eta Sarrik zioen moduan, «euskara da gure territorio libre bakarra».

Hementxe gu, libertatea goza dezakegula konturatu gabe ;)

Amalfiko kostaldea



Proposamen berriren bat?

Bilbotik hegaldi zuzen bat hartuz Napolira goaz. Napoli mediterraneo zaporea duen hiria da. Napoli bi egunetan ezagutu dezakegun hiria da, baino bere inguruan dauden altxorak bisitatzeak merezi du. Capri uhartera gerturatu gintezke, Napoliko portutik ferry zuzen bat hartu dezakegu eta gero Capriko kale estuetatik galdu eta bertako haitzuloak ezagutu.

Beste egun batean Pompeia bisitatu genezake, nahitaezkoa, bertan tour gidatu bat erreserbatuta eta Vesuvio sumendiak utzitako arrastoak ikusi behar ditugu, esperientzia ahaztezina da.

Denborarekin ere Positano eta Amalfi kostako herriak ezagutuko ditugu, trenean edo itsasontziz gerturatu gaitezke. Hemen kaleetatik paseatu, bistaz go-

zatu eta *limoncello* bat edatera gonbidatzen zaituztegu.

Maiori herrira gerturatzen bazarete, Erchieko zonaldean dauden hondartzetara joateaz ez ahaztu!

Asko deskubritzeko duen zonalde zoragarri batean gaude!



**VERONICA BALDA, ENARA ETXEBERRIA
MYRIAM GURRUTXAGA**



ALEX GOIKOETXEA
HARITUZ-EKO KIDEA

Aho(a)bizi

Doinua Aitorren hizkuntz zaharra

Tradizio, lurralde,
Bizitzeko era...
Hori eta gehiago da
Euskal atmosfera
Ta egunerokoan
Asko da gainera
Lenengo hitza euskaraz
Egitea bera.





**HARITZ
AZURMENDI**
IRAKURLEA

Saretu edo ez saretu, hori da puntua

Euskara *txostenero-aren* lorpen handienetakotzat daukat «saretu» aditzaren eztanda, «izapidetu», «ahaldundu» eta beste askorekin batera (hurrengoa «txirikordatu» izango da, egin kasu). Ez alferrik, moda gogorra jarri da plangintzak eta tesiak eta txostenak eta komunikatuak idazten dituzten erakundeek hitz santu hori sartzeko eginahalak egin ditzaten. Euskaltzaindiak ere onartuta omen dauka sare modura antolatzearen

tzera deitzen dela edo antzeko zer bait, buruak mezu kontrajarriak ekartzen dizkit.

Euskaltzaleak saretu? Gehiago? Langileak ere bai? Berez nahikoa mezu ez balego bezala horretarako: telebistan agertzen diren hiritar neutro horiek grebek eragin dien kalteaz hizketan, hitzarmen kolektiboen edo sindikatuen kulpaz sortu gabe geratzen omen diren lanpostuak nahiz beste sutxakur asko. Noski, motz-motza ere ez naiz eta badakit mezua hori ez dela. Baina, hala ere, gaizki afinatutako akorde bat entzuten dut nahi gabe.

Galtzerdiak, alkandorak, galtzen hankarteak eta horrelakoak saretzen dira ezer baino lehen neure buruan. Saretzea entzun eta josturak askatzea edo ehunak laxatzea etortzen zait.

esanahi hori sareturentzat, baina ea, orain gutxi arte eta hemen inguruan behintzat, beste esanahia zabalduago zegoela ez ukatu niri.

Galtzerdiak, alkandorak, galtzen hankarteak eta horrelakoak saretzen dira ezer baino lehen neure buruan. Saretzea entzun eta josturak askatzea edo ehunak laxatzea etortzen zait. Edo, bestela, Andoni Aizpuru hodeitzak saretzera egingo duela esaten. Dena dela, trinkotasuna galtzea behintzat, zer bait xarexare eginda egotea. Hortaz, entzuten badut euskaltzaleak saretzea dela helburua, langile klasea sare-

Hori bai: hitz eta esamolde kutsakor horiek ez, baina autoantonimoak gustatzen zaizkit. Esaldi jostalari asko sor daitezke eurekin («Herrietako bizitza saretu ez dadin, beharrezkoa da belaunaldi, talde, eragile desberdinak saretzea»). Gustatzen zaizkidan bezala euren zilborrari begira bizi ez direnak, kontzientzia kolektiboa daukatenak. Eta ikusita horietako askok saretu desberdin erabiltzen dutela, agian merezi du hitz baten esanahia saretzeak, kolektiboki pentsatzearen truke. Ikasi behar da borroka aukeratzen ere.

Arropa lehortzeaz



**MADDI
DORRONSORO
OLAMUSU**
ANTROPOLOGOA

Hau horrela egiten da», ileak tente jartzen dizkidan esaldia da. Onartzen dut norberaren egiteko moduak zuzentasunarekin nahasten dituen lehena naizela, baina bereizketa egitea ezinbestekoa da. Egunerokotasunetik adibide bat jarritz, nire etxean galtzak behealdetik zintzilikatuta lehortzen ditugu leihoko esekitokian, eskuinteko bizilagunak gerrialdean jartzen ditu pintzak eta ezkerrekoa da galtzei lehortzeko buelta ematen dien bakarra. Lehenengo solairukoek, ordea, ez dute kanpoko esekitokirik ere, beraz etxe barruan lehortu beste erremediorik ez dute. Ondoko etxekoa konbentzitututa dago arropa kanpoan lehortzea ideia oso txarra dela eta lehorgailuan sartzen ditu eta goiko base-rriko bizilagunak ez du galtzarik soinekoak asko gustatzen zaizkiolako. Zein da galtzak lehortzeko modu onena? Denak balekoak dira, lehortzen badira behintzat.

Norberarena gauzak egiteko modu bat da, ez gauzak egiteko modu bakarra. Hortxe dago gakoa, pausotxo bat atzera eman eta gauzak distantziatik begiratzea konturatzeko norberaren bizimodua ez dela unibertsala. Behin ideia honi buelta pare bat eman eta bonbilla piztean jabetzen gara mundua ez dela gure zilborrean ez hasi eta ez bukatzen. Gure bizimodua antzekoago eta desberdinagoak diren beste batzuekin elkarbizitzan dago. Buruan *klik* hau egitea tolerantziaren bidean pauso bat egitea da, baina gero ibiltzen jarraitu behar da. Inor ez da *dekonstruituta* jaiotzen, pauso bakarrean inor Uzturreko puntara igo ez den modu berean. Aniztasuna garrantzitsua dela onartzeak esan nahi al du gauzak egiteko modu guztiak direla era berean errespetagarriak? Bai eta ez.

Arropak nola lehortu behar diren erabakitzeke bada ziurrenik bai, Oria ibaian igerian besoa uretatik kanpo duzula bakeroak aieratu nahi badituzu ere. Baina eztabaida urrunago eramanez gero segituan zailtzen da kontua eta orduan denak ez du balio. Norberaren moduek ingurukoak kontutan hartu eta errespetatu behar dituzte, alferrik gabiltza nik nirea egiteak zuk zurea ezin egitea badakar. Nire eskubideak bestearenak hasten direnean bukatzen dira, dio esaldi famatuak. Beraz, esan dezagun aurrerantzean: «Guk horrela egiten dugu gure etxean, eta zuk?».

**Hortxe dago
gakoa,
pausotxo bat
atzera eman
eta gauzak
distantziatik
begiratzea
konturatzeko
norberaren
bizimodua
ez dela
unibertsala**

AGENDA

OSTIRALA ABENDUAK 3

ADUNA

EUSKARAREN EGUNA

14:30. Altxorraren bila.

19:00. *Paperezko hegoak* dokumentalaren emanaldia, kultur aretoan.

ALEGIA

EUSKARAREN EGUNA

18:00. *Zutik* filma haurrentzat. Sarrerak bi euroko kostua izango du.

22:00. *Ane* filma. Sarreak hiru euroko kostua izango du. Sarrerak kultur etxean salgai azaroaren 29tik aurrera.

ALKIZA

EUSKARAREN EGUNA

18:30. *Luze edo motz* ikuskizuna, Mirari Martiarena eta Idoia Torre-gairekin, kultur etxean.

ALTZO

EUSKARAREN EGUNA

19:00. *Euskara-Natura-Feminismoa txirikordatz* Lorea Agirre eta Iñaki Sanz-Azkue hizlariekin. Aner Peritz eta Maialen Akizu bertsolariekin, Batzarremuñon.

BERASTEGI

EUSKARAREN EGUNA

Egun osoan zehar. Euskal musika jarriko du udalak.

19:00. Euskararen eguneko pin-txo-potea.

BERROBI

EUSKARAREN EGUNA

17:00. Altxorraren bila, plazan.

18:00. Txokolate beroa.

19:00. Bertso poteoa Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolari-ekin eta trikitilariek alaituta.

BIDANIA-GOITAZ



EUSKARAREN EGUNA

18:00. Kantu jira herrian zehar. Hasiera eskolako jolastokian emango zaio, segidan Goiatzera igoko dira eta ondoren, Bidaniara jaitsiz amaituko dute.

IKAZTEGIETA

EUSKARAREN EGUNA

18:00. *Euskara Tolosaldean: kartografia bat* hitzaldia, Galtzaundi euskara taldearen eskutik. Jarraian mokadutxo bat hartuz gaiaz hitz egiteko aukera egongo da. Erabilera anitzeko lokalean.

IRURA

EUSKARAREN EGUNA

Irurako Ikastolak antolatuta, Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizuna.

LARRAUL

EUSKARAREN EGUNA

18:00. *Pixo post eta opari-emai-leak* filmaren proiektzioa.

LIZARTZA

EUSKARAREN EGUNA

19:30. Bertso poteoa Oihana

Iguaran eta Haritz Mujika bertsolari-ekin, eta Ane Urbizu eta Manu Gaigne musikari-ekin. Herriko os-tatuan.

TOLOSA

INAUGURAZIOA

19:00. *EmakumeARTE*an Jabetze Eskolako ikasleen eskutik. Argazkigintza, xilografia eta pintura. Aranburu jauregian.

BAKARRIZKETA UMORETSUA

20:30. *Irabazi*. bakarrizketa umoretsua Jon Plazaolarekin (bonutik kanpo). Leidor antzokian. **Irakurri Jon Plazaolari egindako elkarrizketa 26-28 orrietan.*

TOLOSALDEA

ENPLEGUNEA

Enplegunea. Aurrezko hitzordua eskatu behar da: *lan3@tolosaldea.eus* edo 943 654 501. 60 lan eskaintza izango dira.

ZIZURKIL

HERRI BATZARRA

18:30. Plazaetxeberri eraikina ku-deatzeko proiektuaren azalpena eta etorkizuneko erronkak. Plaza-etxeberri eraikina herriaren on-



dare bihurtu ondoren, udalak parte hartze prozesua jarri zuen martxan, herriBIZigune elkarteak bi urtetan zehar dinamizatu duen prozesua. Ondorioak parte hartze batzordean eta pleno orokorrean aurkeztu dira. Oraingoan, bertan hartutako konpromisoak herritarrekin partekatuko dituzte, Iriarte kultur etxean.

LARUNBATA ABENDUAK 4

BERROBI

UDAZKENEKO KULTURALDIA

15:30. Frontenis txapelketako finala.

TOLOSA

HITZALDIA

11:30. Hitzaldi informatiboa Al-tzoan elkarteak antolatuta. Gura-soentzat eta neska eta mutilentzat tailerrak. Maria Muñoz Cobo sexologoarekin. Harremanetarako: 680 32 41 75. Abastos eraikinean (Plaza Berrian).

JABETZE ESKOLA

17:00. Emakumeentzako jabetze

eskola. *Erromantikoa politikoa ere bada: Maitasunagatik jada sufritzen ez duten emakumeak.* Coral Herrera prestatzailearekin. Gaztelaniaz. Doan (aurrez izena eman behar da). Kultur etxean.

BIRAKABARETA

19:30. Pailaztana klown taldea, Pailaztana junior, Numen dantza eskola, Gorka Pereira, Pablo Caceres eta Imanol Suso. Topic-en.

KONTZERTUA

22:00. Syberia taldearen kontzertua Bonberenean izango da. Sarrerak zortzi euroko kostua du.

IGANDEA ABENDUAK 5

LIZARTZA

TAILERRA

17:30. Gabonen atzera kontaketa-rako egutegiak sortzeko tailerra izango dute Lizartzan. 2011n edo lehenago jaiotako gazteei zuzenduta. Izen-ematea:

lizartzakobegiraleak@gmail.com
Partaide bakoitzak arropa zintzilikatzeko pertxa bat eraman behar du.

TOLOSA

TXAPELKETA

10:00-14:00. V. Iristaka Indoor Saria Usabal kiroldegian.

ASTELEHENA ABENDUAK 6

TOLOSA

HERRI ESKOLAK

11:00. Ikasle Abertzaleak erakundeak deituta, herri eskolak Tolosako Trianguloan.

ELKARRETARATZEA

12:00. Eskualdeko pentsionistak udaletxe aurrean bilduko dira, euren ohiko borrokarekin jarraituz, pentsio duinak eskatzeko.

PILOTA

17:00. Beotibar pilotalekuan hiru partida jokatu dira. Binaka Elordi-Bikuña eta P.Etxeberria-Ladis Galarza. Ondoren, EPELen Binakako Txapelketako sailkapen liga. Altuna III-Martija eta Elezkano II-Zabaleta. Eta azkenik, Binakako Promozio Txapelketako sailkapen liga. Victor-Gaskue eta Zabala-O. Etxebarria.

ERAKUSKETAK

ALKIZA

HITZAK ZAINDARI

Hitzak zaindari erakusketa ibiltaria Alkizara iritsi da. Euskal liburugintzaren eragileek, zaintzaren gaia ardatz hartuta sortutako ekimena da *Hitzak zaidari*. **Fagus Alkiza interpretazio zentroan** ikusgai dago 2022ko urtarrilaren 14a bitarte.

BERROBI

HERRIA

Herria argazki erakusketa udaltxean, Udazkeneko Kulturaldiaren barruan. Goizez egunero irekita eta arratsaldeaz astearte eta ostegunetan. Abenduaren 21a arte ikusgai.

TOLOSA

PLANETA LORATEGIA.

PLANETA INFERNUA

Txaro Maraño eta Charo Cima sen erakusketa. Bi artistek beren lanak erakusketa berean uztartzea erabaki dute. Kasu honetan, erraza eta agerikoa badirudi ere, erakusketaren lotura izenean egon daitekeela pentsa daiteke, baina ez da komeni Charo eta Txaro horren azalean geratzea. Izan ere, zalantzarik gabe eta zorionez, badago beste zerbait... Abenduaren 11 bitarte ikusgai.

Aranburu jauregian.

EMAKUMEARTEAN

EMAKUMEArtean erakusketa **Aranburu jauregian**. Tolosako Udaleko Berdintasun sailak antolatutako Jabetze Eskolaren barruan Argazkigintza, Xilografia, Arte eta emozioak ikastaroetan parte hartu duten emakumeen lanak biltzen ditu honako erakusketak. Pintura, argazki eta xilografia hauen bitartez, euren emozio, intuizio, begirada eta aldarrikapenak adierazi dituzte. Ura Iturralde Larrañaga, Leire Marki-



nez Calvo eta Oihana Ugarte Iriarte banakako eta taldeko ibilbide interesgarri honen gidariak izan dira. 2022ko urtarrilaren 8a bitarte ikusgai.

BINILOKO DISKAK ETA

TXOTXONGILOAK

Lleidako Txotxongilo Zentroak binilozko diskoen eta txotxongilo munduaren arteko harremana islatzen duen erakusketa berezi bat ekarri du Topic-era. Bertan, txotxongiloei erreferentzia egiten dien hainbat binilo karatulen bilduma eskaintzen ditu bakoitzaren musika entzuteko aukerarekin batera. 2022ko abenduaren 16a bitarte ikusgai, **Topic-en**.

PAPEREZKO ANTZERKIA

Paperezko antzerkia Ingalaterran jaio zen 1811n familia-antzerki gisa Europa osora zabalduz, XX. mendearen hasiera arte. Hainbat urtez ahaztuta egon ondoren, duela hogeita hamar bat urte itzuli zen eszenatokietara mundu osoko artistei esker. Antzerki hau bai haurrei bai helduei zuzenduta dago. Praktika honen aitzindarietako bat Alain Lecucq da, espezialitate honek Europen duen

erreferentzia-izen handiena. Bere ibilbide profesional osoan zehar sorturiko lanaren bilduma batez osatutako erakusketa eskaintzen du **Topic**-ek, erakusketa honetarako bereziki, bilduma pribatueta-tik eta beste herrialde batzuetako museoetatik ekarri diren obrek. Paperezko antzerkiaren historiari errepaso bat emango diote, XIX. mendearen hasierako praktika horren garapenari buruzko dokumentu eta piezekin hasita. Ondoren, Paperezko antzerki garaikidearekin jarraitu dute, ikuskitzen laburpenak aurkeztuko dituen bideoekin batera. Topic-en ikusgai, 2022ko maiatzaren 1a bitarte.

MIKEL GARMENDIA URANGA

Mikel Garmendia Uranga alegiarren pintura erakusketa **3 tabernan**. Erakusketa ikusgai izango da abenduaren 15a bitarte.

OHARRA. Aldizkaria inprentara bidaltzerako indarrean zegoen eskualdeko agenda da honakoa. Jakina denez COVID-19ak unean uneko aldaketak sortu ditzake.

ZINEMA



FAMILIA DE MEDIANOCHE

Larunbata (19:00),
igandea (19:30) eta
astelehena (20:30).
Tolosa, Leidor.



RATONES Y ZORROS. UNA AMISTAD DE OTRO MUNDO

Astelehena (17:00).
Tolosa, Leidor.



EL LOBO Y EL LEÓN

Igandea (17:00).
Tolosa, Leidor.



ETERNALS

Astelehena (21:30).
Tolosa, Leidor.



LAS FANTASÍAS

Igandea (19:00).
Tolosa, Leidor.



OLTXIAK

Igandea eta astelehena
(17:00).
Gurea, Amasa-Villabona.



EL BUEN PATRÓN

Igandea (21:30) eta
astelehena (19:00).
Tolosa, Leidor.



PAN DE LIMÓN CON SEMILLAS DE AMAPOLA

Larunbata (19:30 eta
22:00), igandea (19:30)
eta astelehena (19:30).
Gurea, Amasa-Villabona.



«Irabazten denean, zintzotasunean irabazten jakin behar da»

JON PLAZAOLA
AKTOREA

Euskararen Nazioarteko Egunari lotuta, Jon Plazaolak 'Irabazi' bakarriketa eskainiko du, 20:30ean hasita, Tolosako Leidor aretoan. Bertaratzen direnek, naturaltasunez betetako saio umoretsuaz gozatzear gain, etxera ikasgai ugari eramango dituztela aurreratu du aktoreak.

Josu Artutxa Dorronsoro

«Bizitzaren lehiaketan, irabazi, batek bakarrik egin dezake». Hala dio Jon Plazaola aktoreak (Urretxu, 1982). Gaur iluntzean, Felix pertsonaiaren paperetik aritzea egokituko zaio Leidor aretoan. Umoretik abiatuz, publikoari zenbait lezio ematen saiatuko da, bai berak baita ikusleek ere irabaz dezaten.

Zer da 'Irabazi'?

Stan up comedy generotik aldentzen den bakarriketa bat da, antzezlanera gehiago hurbiltzen dena. Publikoak oholtza gainean ikusiko duena ez naiz ni izango, ez da Jon Plazaola izango. Felix izeneko publizista da protagonista, iragarkietarako esloganak

edo leloak sortzen dituen publizista bat da. Pertsonaia horren bitartez, gizarteak bizitzeko duen izaera lehiakor hori hezur-mamitu nahi dut.

Zergatik da garrantzitsua gure alderdi hori nolakoa den erakustea?

Etengabe gure onena ematera behartzen gaituzte, zertarako edo

nora goazen ondo jakin gabe, produktibitate hutsagatik edota ondokoaren gaintetik geratzeak ematen digun plazer hutsagatik. Baina askotan galdetzen diot neure buruari zergatik zentratzen garen hainbeste garaipena edo antzeko zerbait bilatzen, zoriontasuna bilatu beharrean. Guztiok dugu beteta gure agenda, denok bizi gara okupatuta, eta aldi berean, gure sasoirik onenean egon nahi dugu. Egin behar ugari ezartzen dizkiogu geure buruari, erronka modura. Eta askotan, egiteko horiek guztiek gure artean lehiatzera eramaten gaituzte, eta irabazi ahal izateko erreminta bezala erabiltzen ditugu, oraindik inork ez digulako erakutsi benetan zoriontsu izateko zer egin behar dugun.

Parte hartzea da garrantzitsuena. Esaldi horrekin abiatzen da 'Irabazi' saioaren azalpen testua. Zenbat aldiz entzun ote dugun hori...

Bai, eta zenbaitetan gainera, bestelako mezu batzuk estaltzeko erabili izan da, batez ere, bizitzak aurkako noranzkoa daramanean. Hain justu, garrantzitsuena irabaztea dela esateko erabiltzen dute esaldi hori; hori da bizitzak erakusten diguna. Gure bizitzetan bai da garrantzitsua parte hartzea, bizitzan parte hartzeak bizitza bizitza esan nahi duelako; horretarako gaude. Topiko izugarria da hau, baina bizitza bakarra da, eta bizitzeko dago; ez dago bigarren aukerarik. Hain justu, adibide barregarri batekin «parte hartzea da garrantzitsuena» esaldiaren kontraesana azaltzen dudan momentua da antzezlaneko nire zati gogokoena.

Horregatik diozu esaldi hori buruan sartu gintuena gezurretan ari zela?

«Askotan galdetzen diot neure buruari zergatik zentratzen garen hainbeste garaipena bilatzen, zoriontasuna bilatu beharrean»

«Gure bizitzetan bai da garrantzitsua parte hartzea; horrek, bizitza bizitza esan nahi du, bakarra delako eta bizitzeko dagoelako»

Bai. Eguneroko bizitzak bi gauza erakutsi dizkigu. Batetik, irabazteko bide bakarra dagoela; hau da, honakoa egiten ez duenak ez duela irabazi. Horrelakoetan, gainera, irabazle bakarra egoten da, eta beste guztiak galtzaileak edo ez-irabazleak izaten dira. Horrez gain, ohorea irabazleentzat bakarrik izaten

dela ere irakatsi izan digute. Orduan, sistema hori ezagutu eta sustatu duen gizarte batean horrelako esaldi bat sartzea, gezur hutsa iruditzen zait.

Galtzen irakatsi digute, baina irabazten ba al dakigu?

Ez nuke jakingo esaten. Bizitza bera bilaketa bat izaten da. Askotan, topatzen duzun hori ez da bilatzen zenuena izaten. Baina topatutako horri arreta jarritzera, baliteke zerbait polita edo eraginkorra aurkitzea. Orduan, bai irabaztea, baita galtzea ere oso erlatiboa dela esango nuke. Galtzen erakusten digute; gainera, oso pentsaera kristaua da, ondokoaren kontsolamendua jasotzea dakarrelako. Hala ere, irabazten ere jakin beharra dago. Gaurko saioak inbidia ere jorratzen du. Ofizialki irabazten duzunean, askok kendu egin nahiko zaituzte gailur horretatik. Hori gertatzeko askok duten ezkutuko nahi ilun hori begien aurrean jartzen zaio publikoari. Irabazten denean, beraz, zintzotasunean irabazten jakin behar da, hitz horrek duen erlatibotasunean oinarrituz.

Gozategi musika taldeak bere kantu batean hala dio: «Galdutakoan ere, irabazle gara». Zure saioan ere eman dezakezu lezio hori.

Gutziz ados nago. Beti esan izan dut ez daudela esperientzia txarrak eta onak, esperientziak baizik. Txarrak galtzearekin lotzen ditugu; onak, berriz, irabaztearekin. Horrela ere, ikasgai ugari eramango ditugu etxera. Horretarako, adimena eta pentsamendu zabala behar dugu. Ezinbestekoa da izaera ireki horrekin bizitza. Horrelako jokabidea izanez gero, ikasgai bat baino gehiago jasoko dituzu, eta beti izango da onerako.

Nork irabaziko du Tolosako saioan? Felixek? Publi-koak?

Felixek transmitituko duen mezua argia da. Guztiok irabazi behar dugu, bai berak, baita Tolosako publi-koak ere.

Aktore askok diotenagatik, plaza zaila omen da To-losa; publiko kritikoa duena, baina aldi berean, gauzak ondo eginez gero, ederki eskertzen dakie-na. Ez da erraza izango, beraz, bertan irabaztea.

Transmititzen dudun mezua nahiko fidela edo erreala da. Ez du perfekzio handirik eta publikoak barrutik ateratzen zaidan zerbait ikusi eta entzungo du; hori da, behintzat, transmititu nahi dudana. Lasaitasunez hartzen dut *Irabazi* obraren saio ba-koitza, gogo handiz egiten dudalako, eta beraz, naturaltasun hori edo egia hori ikusiko dute Tolosara gerturatzen direnek.

Nolako harrera izan du 'Irabazi' saio-ak orain arte eskaini duzun herrietan, eta zein dira aurrerantzean dituzun asmoak?

Donostiako Antzoki Zaharrean estrei-natu genuen iazko udan, eta erantzun

«Antzezlanaren lehen erdian, bakarrikzeta komikoagoa da; bigarren erdian, gai ilunagoak jorratzen ditut»

bikaina izan zuen. Nik neuk idatzia eta zuzendua da antzezlan, eta lan horretan horrenbeste denbora igaro ondoren, emaitza oso positiboa izaten ari da niretzat. Horrez gain, beste hamar bat emanaldi egin ditugu, eta horietan ere, harrera oso ona izan du.

Antzezlanaren lehen erdian, bakarrikzeta komiko-agoa da, eta beraz, publikoa barrez lehertzen da. Bi-garren erdian, ordea, giroa serioagoa izaten da, gai ilunagoak jorratzen ditudalako. Hortaz, ederra da publikoak nolako harrera izaten duen konturatzea. Isiltasuna eta tentsioa nagusitzen dira. Hori zen lor-tu nahi nuena, eta beraz, oso gustura nago izaten ari den erantzunarekin.

Gaur egun, Madrilén nabil telesail baterako grabaketan, eta beraz, *Irabazi* obraren emanaldi gehiago es-kaintzeko aukera handirik gabe nabil. Uztailean, ordea, Antzoki Zaharrera itzuliko gara, eta hortik aurrera, are gehiago eskainiko ditugu. Tolosakoa, Euskararen Nazioarteko Egunaren ha-rira, data ezin aproposagoa eta an-tzoki bikaina obra berrartzeko.





saridunak



Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

- Amaia Irizar (Tolosa)

'Gure bertso zirkua'
helduentzako
saiorako 2 sarrera.

Larunbata, abenduak 11, 18:00h.

ATARIA jarriko da harremanetan

	KALE NAGUSIA 26 VILLABONA AKAM <i>espazioa</i> Kaori Faktoria x Amlu Studio Ikastaroak: JOSKINTZA 3D BITXIGINTZA MAKRAMEA www.akamespazioa.com	
--	--	--

TOLOSALDEKO ATARIA SAHARAKO ERREFUXIATUEN KANPALEKUETAN	Bidairen informazio eta irudi guztiak hemen
---	--

	Maite dituzunentzako opari bila? Villabonako Garintza mertzerian lagunduko dizugu. Ziur asmatuko dugula! Kale Nagusia, 2 Villabona • 627658940
--	--



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Eguraldi kaskarrarekin jarraituko

dugu. Egun osoan hodeiak izango dira nagusi eta euria izango dugu. Zaparradak ugariagoak izango dira goizean, nahiz eta, ez diren oso indartsuak izango. Arratsaldean ahu-lago eta tartekatuago egingo du, azken orduetan ateri geratuko delarik. Haizeak mendebaldetik joko du eta tenperaturak gora egingo du, 12-13 gradutan joaz goia. Goizean elurra 1.000 metroan egongo da, baina ondoren gora egingo du.

LARUNBATA

Giro makurra izango dugu. Goizaldean sartuko den fronte batek zeru estalia eta euria ekarriko dizkigu. Euri zaparradak mardulak izango dira, batez ere, arratsaldean, non orduan nahiko etengabe egingo duen eta ekaitzak jo eta kazkabar txikia ere egin dezakeen. Haizeak ipar-mendebaldetik zakar edo oso zakar joko du eta tenperatura antzeko balioetan mugituko da, 12-13 gradutan joaz goia. Hala ere, arratsaldean hozten joango da. Elur-maila azken orduetan 1.000 metroan kokatuko da.

IGANDEA

Eguraldi traketsa. Egun osoan zehar zerua oso hodeitsu egongo da eta euria hizpide izango da. Egun guztian zehar zaparrada mardulak botako ditu eta sarri gainera. Hala ere, ugariagoak eta mardulagoak izango dira egunaren lehen eta azken orduetan, non ekaitzak jo eta kazkabar txikia egin dezakeen. Haizeak ipar-mendebaldetik zakar joko du eta tenperatura jaitsi egingo da, nekez gaudituko dituztelarik 7-8 graduak. Elur-maila 700-800 metroan kokatuko da.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€
45€
51€

Atarikideek

12€
33€
38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

ABENDUAK 3, OSTIRALA
TOLOSA

Egunekoa. Eurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

ABENDUAK 4, LARUNBATA
TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korreo kalea, 20.
943 67 60 13.

ABENDUAK 5, IGANDEA
TOLOSA

Egunekoa. Lourdes Azpiroz Galarza.
Larramendi, 6.
943 67 51 18.

ABENDUAK 6, ASTELEHENA
TOLOSA

Egunekoa. Marta Olarreaga Aranburu.
Martin J. Iraola Etrobidea, 10.
943 67 24 38.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.**



ANOETA ITURTXULO

28 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA
TRASTELEKU
AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!

2 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
BAJUAK, 30M2-KO TERRAZA
SUKALDEA BARNE
GARAJEA ETA TRASTELEKUA
AUKERAN

210.000 €
-tik hasita



BERASTEGI – ATEGI II

12 ETXEBIZITZA TASATU
3 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
GARAJE ITXIA BARNE
EGIN ZURE ERRESERBA!



169.627€-tik hasita

*Gabonak
soilik mó
izan daitezke*

**2 MÓ
229€**

progresibo. erreflexuen aurkako lenteekin

R.P.S. 91/20

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

www.multiópticas.com   

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen